

ARGI TA GARBI
Landeia (1968 Apirilla)



Politika-abere dala gizona, antziña esan eban Aristotelesek. Onek beragan dakar, nai ta nai ez, gizona gizon danetik eta politika legepean bere bizitza antolatu bearra daukanezkero, politikari lotuta egotea, politikan nasturik eta politikaz beterik izatea, bai itzetan, bai ta ekintzetan, beti zelan edo alan. Politikari iges egin eziña berezko legea dala esan bear da.

Eta abadeai buruz beste ainbeste esan bear, jakiña: Gizon direnez oiek be politika-abere.

Abade askok ez dauke entzun bearrik, ezta be alderdigabetasuna edo "neutralismo" ori edo beti "abade-uts" bakarrik agertu gurea azal-gezurkeri, hipokresi jantzia dala jokabide ori atzekorra, "reakzionarioa", dala.

Feltin Paris'ko Kardenalari, abade langille talde batek dirautsan: "Benetan zentzungabea dala ikasi dogu, bardin guretzat eta edonorentzat, eztabaidari egañetik iges egitea, tartean sartu barik, edo, batzuek esan oi dabenez, "gizon orokorrak" izate ori zentzungabe jaku: beraz, itzen esanguraz bestela agertu arren, agitean gudan eta erresistentzian lez, alderdi batera edo bestera joten da beti" (Les Pretes Ouvriers. Document. Les Editions de Minuit, pág. 230/232).

Olan ba ez jako iñori arrigarria izango, LAN DEIA'K auzitan artzen baditu eleizgizon batzuen -abade naiz pralle izan- ekintzak edo "ekintzaezak" edo "geldi egonak", ikusi dagigun zelako politika alderdikeria daroen ondoren. Gure euskal erriarentzat kaltegarriak iruditzen jakuz ondoren orreik. Era berean neurtu geinkez "politikan nastu barik", esaten oi dabenez, mundu zuzenagoa eta gizalegekoa lortu gurean diarduen mogimentu konfesionalak.

Orregatik, arira joaz, gure erriaren egoera onetan, gaurko situaziño konkretoan, talde oneik internazionalismoaren eta inperialismoaren artean aukera egin bearrean aurkitzen dira. Esan gura duguna au da: Gure erriaren politika egoera azterkatuezkero, itsuak berak be ikusuko dau "nunbait zapalduta dagoen aberriaren edo nazioaren alde jardunaz eta egiz abertzaletasun askatzalleai laguntzen ez deutesnak, ezinbestez, nazionalismo zapaltzalleari lagun egiten deutesola, nazionalismo au atzerakor eta baliatzalle izan arren. Augatik diñogu ao betez "apolitizismoa" "politikan naastu gura-eza" eta gezurkeri dan "neutralismo" edo alderdigabetasuna aberriaren askatasun burrukan, une onetan Españiar inperialismoari eballi leizkean arpegi estalgirik maltzurrenak dira, eleiz gizon batzuek eta katoliko mogimentu batzuk -sindikalista izan edo ez- postura ori maitatu eta magalpetuten badabe ere.

Onelaxe inperialismo orren morroi dira: katoliko eta eleiz-gizon batzuen ume ezkerkeria barritsua; bardin jauntxoen unibersalismo gaizoa; euren politika-jakiñeza; oportunismoa, "sozialismo" edo "Komunismo" itxurapean agertzen dan inperialismo burgesari eskua emanaz; inmigranteekin daroen ekintza (Euskal-erria maitatuz beren gizon azkerean lagundu-bearrean, saiatzen dire, sasi-errukiz beterik, Euskal-erriaren kontra jazartzen, españar inperialismo burgesaren morroitzalera biltzeko, erria ta langilleak bereiztuta. Gañera, orretan lagun dira inperialismo indar guztiakin, Falangista direala edo P.c.E.'koak direala). Alako baten agertuko degu zetaraño jokaera oneik inperialismoz beterik direan. Gaur ostera egite banaka batzuk aitatuko doguz, orrela egite onei buruz gure jokaera oñarrituteko asmoz.

Fascista inperialismoak (eta aditu ezin bada be, beragan bat egiñik jokatzen dabe Euskadi barruan "marxista" izeneko mogimentu batzuk), bere arerio gogorrenak makaldu eta odolustu nai ditu; eta oneitatik lenenak peninsulako erri zapalduak dozuz. Benetan zoli eta zorrotz agertzen jakuz asmo orretan. Gure erriaren erlijiotasunaren jakitun denez inperialismo ori, erlijio beraren bidez euskalerririk burruka zuzenez lortu nai dituan elburuak kezkan eta zalantzan jartzen ditu. Progresista izenagaz agertzen direan abadeak (ez badakigu be nondik eta nora izen ori) egiaz eurak be inperialismo orren morroi jakuz. Euskalerrietako seminarioetan, bai ta pralle etxeetan, moralismo baten indarrez abadegaien kontzientzia moldatuten saiatu dira "alderdigabetasun" batera (fascista morala, noski). Azalgezurti neutralismoz burua zuruturik aberriaren askatasun burrukari iges egin dagioen. Pentsaera au aurrean dala sasi-socialismo eta sasi-progresismo guztiei bidea emon jake. Orrez gañera, kristauak edo katoliko "progresistak" ez eukan besterik abertzaletasunari betiko agur esan, munduko erritar epel biurtzea. Jakiña, gauz ori izatez eta egitez Españiar biurtzea, besterik ez da. Egia esateko, ondorenak

ez dira izan beti inperialismo orren zerbitzariak uste izan dabezanez, eta sasi-progresismo inperialista onek azken arnasak emoten diartu azalkei batzuk euskalzaletasunari emonaz eusko indarrekin baliatutzearen eta oiok menperatzeko asmoz. (Adibidez: irakuburuak... izenak... bai ta euskeraz idatzitako artikuluren bat... eta abar...) Naiko jaku norbait uts onetan jautsi balitza, gaur azpi-joko au salatu eta gizajoak esnatu dagikeguzan.

Gaur eta emen unibersalismoa, internazionalismoa edo umanismoa eusko langilleen askatasunaren alde, euskalerraren askatasunaren alde burrukatzea da. Eusko-langilleak eta euskal-erria askatasun-bidetik atzeratu edo alderatu, sozialismo-bideak itxi nai dituenak erlijioaz baliaturik -naiz inperialista alderdikeriakin naiz moralismo astrato barritsu baten bitartez- gure etsai amorrotuenak lez artu bear doguz. Gure eginkizuna da oietarikoen izakerea erriaren aurrean gizonki azaldu eta, batez ere, erriari argi ta garbi aditzen emon zelako Españiar nazionalismo dauken, euren "umanista" eta "etika" -errazoiak.

Gure eskubideak arrazoizko direala zuribide edo justifikazio astratoaren bidez berriro azaldu barik, bakarrik aitatu doguz egite banakaren batzuk: gure erriko gizarte malla eta taldeetan ba da Españiar inperialismoagaz eztabaida, eta iñortxo bere bazterrean gelditu ezin; alde batera edo bestera jo bearra daukagu. Alderdi batera ez bestera jo gura ezak gaur indarrez agintzen dagozenai laguntzen deutso. Edozelako neutralismoagatik edo besteagatik izan arren, gure artean ez da inperialismoari alde emotea baño.

Baña norbaitek itaunduko dau ainbeste sasi-sozialista, edo sasi-demokrata edo sasi-internazionalista berritsu artean, zelan ezagutu geinkezan egiazko sozialistak, benetan Euskal-erriko langillen alde direnak. Orretaz sarritan LAN DEIA'n esandakoa barriro diñogu: gaur egunez Euskal-erriaren autodeterminazioak, edo beste era batera esanda, aberri askatasun burrukak, bide bakarra dauko: bereala autonomia eskuratzea. (Irakurleak obeto aditu nai badau alderdi au, ikusi begiz "LAN DEIA'ren zenbakiak demokratik eta sozialismoak faszismoaren aurka darabilen eztabaida an agertzen da ta). Berealako autonomia "conditio sine qua non" bear bearrezko kondizioa da eusko-abertzalien elkarte bat lortuteko, eta era berean peninsulako demokrata-indar guztiekin elkartzeko. Olan izanik, guretzat, sozialistentzat, alperrekoak dira erretolikak, naiz ta Euskera apañaz jantzirik agertu edo umanista edo eleizkor itxura artu.

Ez dau euskal erriaren askatasunaren alde jokatuten Euskadi'rentzat berealako autonomia oñarritzat jartzen ez dabenak, erruki gabe gañera, ezta euskalerriak askatasun bidean bein betiko lorturiko eskubide ori ukatu edo ezagutzen ez daben indarrakaz lagun egiten dabenak. Inperialistagandik -eleiz gizon izan nai izan ez ezertxo be ez dogu itxaroten-. Baiña bai uste odgu eusko abadeak eginkizun garrantzitsua bete leikiela erri askatasunaren burruka onetan, gogoan artzen badabe, izakeraz, berez, politika, egin bearra daukenezkero, oba dala zer esateko politika egiten dan jakifrik egitea.

E.L.A.'k ez dau nai Euskadi'ren askatasun burruka monopolio lez artu: E.L.A. ez da besterik langilleen aurreko taldea baño, sindikal eta politika arazoetan, eta era berean on eristen deutso erriko giza malla bakotzak euki dagiezala bere aurreko politika taldeak eta politika elburuak. Baña inperialismoaren aurrez elburu bardiñak daukaguz: Lehen-lenen gure sorterrria aldeztu, gure izkuntza, gure kultura, oiturak, produziorako daukaguzan indar guztiak ere. Beingoiz eta politika aldetik gure burrukak elburu bat dauko: Bereala autonomia lortu, tarteko egin al gaitezkan peninsulako beste indarrakaz reboluzio demokratikuari buruz. Elburu onen inguruan premiñazko dogu Euskadi'ko indar guztien alkartasunik

andiena. Sekula ez da gure asmoa izan abadeai zein dan euren "abade-uts" eginberra esaterik. Ori jakitea eurei dagokio-ta. Politikan, batzuek, gure elburuak on arturik gurekin batuko dira Euskadi sozialista bat lortu gurarik, beste batzuek ostera naiago izango dabe, demokrasi-barruan, beste politika-soluzioren bat. Baita izango dira (ba dira) imperialismoari lagun-egitea erabagiko dabenak. Lenengo talde biek lagun iruditzen jakuz. Irugarrenok, ordez, gure arerioak dira. Ametsik be iñok ezindau izan Euskalerrriaren laguntzat artu dagizan, bere ekintzak eta izakerak erdiz-erdiz beste aldera jotzen badabe.

Artikulu onen bitartez nai izan dogu azaldu titia artzeari aintxiña utzi geuntzela, eta ondo ezagutzen doguzala egiazko lagunak, bai ta euskal kontzientziaren reboluzio-indarra zelan edo alan moteldu gurarik dabilzazenak, orrelan galazoteko aberlzale-elkarlea lortutea inperialismoaren aurka.